

Alde batetik, bilduma hiru hizkuntzetan batera argitaratzeko gastu eta ekinbide absurdua. Jokabide horrek ez dauka nire ustez inongo zentzurik, bilduma honen irakurleak ez baitaude euskaraz irakurtzen ez dakitenen artean. Gaztelaniaz eta frantsez aparte argitalpenetan ateratzeak funtzio bat izan dezake, baina modu honetan, denak batera, ez diot nik inongo onurarik ikusten.

Bigarren, Eusko Ikaskuntzak bere “koadernoak” argitaratzeko darabilen papera da aipatzekoa, nire ustez guztiz txarra eta desegokia baita argitalpen zientifikoetarako, bai seriotasuna lapurtzen diolako argitalpenari (katalogoetako papera ematen du), bai eta erabiltzeko eta irakurtzeko (argia islatzen duen moduagatik) oso deserosoa delako ere.

Azkenez, maketazioaz hitz egin gurako nuke, hasierako aurkibideena batez ere: ez dauka ez hankarik, ez buztanik, eta are gutxiago irakurgarritasunik. Ezinezkoa da halako aurkibide hiru-hizkuntzadun batean, eta darabiltzan koloreekin, ezer ere erraztasun eta gozotasunez aurkitzea. Kasu honetan ezinezkoa den arren (testu guztiak hiru hizkuntzetan argitaratu direlako), nire ustez aurkibide bakarra jarri beharko litzateke, artikulua idatzi diren hizkuntzan bakarrik iragarrita.

Konponduko al ditu Eusko Ikaskuntzak akats hauek!

Andolin Eguzkitza (†)



EUSKAL Unibertsitatea 2021: egiten ari garen euskarazko unibertsitatea

Bilbo: EIRE eta UEU, 2002. – 491 or. ; 24 cm. – ISBN: 84-8438-028-9

2001eko udazkenean, ehun eta hogeitaz hamar unibertsitate-irakaslek kongresua egin zuten Bilbon, **euskal unibertsitatea** gaitzat harturik. Kongresukideen artean, Euskal Herriko unibertsitate ofizial guztietako irakasleak egon ziren, batzuk erakundearen ize-nean, eta gehienak modu indibidualean. Horiekin batera, unibertsitate-bokazio duten beste zenbait erakunderen kideak ere bertan izan ziren. Euskal Herriaz kanpoko jendea ere gonbidatu zuten antolatzaileek kongresura.

Txostenen aurkezpenak, eztabaidak eta ondorio-bilketa nagusia Bilbon burutu ziren, Bizkaiko Foru Aldundiaren hitzaldi-areto batean. Kongresua egin ondoren, antolatzaileek eurek (*EIREK*) eta *Udako Euskal Unibertsitateak* elkarlanean egindako ekoizpen-lanaren bidez ikusi du kalea *Euskal Unibertsitatea 2021* liburuak, Bilboko bilkuren txostenak bildu dira horra.

1. Lanaren testuingurua

Une estrategikoan ikusi zuen argia liburuak. Izan ere, 2001-2003 ikasturteak bizi ki bereziak izan dira gure artean, Euskal Unibertsitatea zer litzatekeen eta zelakoa izatea gustatuko litzaikekeen definitzeko eta garatzen laguntzeko.

Historian oso atzera egin gabe, iruzkintzen ari den lanaren testuingurua marrazteko, kontuan hartu behar dira zenbait data eta zenbait egitasmo; beste batzuen artean honoko hauek:

- 2001ean, Espainiako Gobernuak indarrean jarri zuen LOU unibertsitaterako lege berria. Besteak beste, euskaraz bizi nahi lukeen balizko unibertsitatea bera ere baldintzatzen du lege horrek.
- 2001eko irailean burutu zuen EIREk kongresua, txosten-bilduma urtebete beranduago argitaratu zen. *Egiten ari garen euskarazko unibertsitatea* izan zen kongresuaren leloa.
- 2002ko maiatzean, JAKIN aldizkariak ale monografikoa plazaratu zuen, eta gaia Euskal Unibertsitatea izan zen hor ere. Aldizkariaren aro modernoaren lehen alean, 1977garrean, gai bertsua landu zuten jakinekoek.
- 2002ko abenduan, UEUK bere bigarren kongresuaren lehen zatia burutu zuen Bilboko Euskalduna Jauregian, bigarren zatia 2003ko ekainean Eibarko Ikastetxe Nagusian. Kongresuaren leloa: *Euskal Unibertsitatea; hausnarketa estrategikoa, geroa orain*.
- 2003an ezagutu dira Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak unibertsitateentzat zituzten egitasmoak, Jaurlaritzak 2004ean utzi du bere legea legebiltzarraren eskuetan.
- 2004an burutu dira Euskal Herriko unibertsitate-erakunderik handienean, EHUn, barne hauteskundeak (errektorea eta klaustroa hautatu dira araudi berrien arabera).

Eskuartean dugun liburuaren testuinguruaren marrazkiarekin amaitzeko, beste hiruzpalau ñabardura behar dira. Batetik, gogoratu behar da ezen gaur egun zazpi unibertsitate ofizialek dutela egoitza Euskal Herrian: horietako lau publikoak dira (Paueko unibertsitate sistemaren campusa Baionan, Ekialdeko NUP, Mendebaldeko EHU eta UNED *urrunkoa*), beste unibertsitate bi konfesionalak dira (Deustukoa eta Nafarroakoa) eta bat pribatua (Mondrago).

Bestetik, ezin da ahaztu ezen Euskal Herrian, gainera, badirela zenbait erakunde unibertsitate –eta jakintza– nahiz zientzia-mailan aspalditik dihardutenak: Elhuyar, Aranzadi, Udako Euskal Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntza...

Eta azkenik gogoan izan behar dugu ezen euskara hutsez jardun, Euskal Herriaren bai iparraldean, bai ekialdean, bai mendebaldean egoitza finkoak lanean eduki eta unibertsitate-bokazioa duen erakundeak, Udako Euskal Unibertsitateak, hogeita hamar urte beteak dituela jada.

Errealitate anitz hori kontuan hartuta, *Euskal Unibertsitatea 2021* kongresuak honelaxe definitu zuen Euskal Unibertsitatea:

(EU) euskarazko unibertsitatea da eta euskaraz egiten den unibertsitate-irakas-kuntza, ikerkuntza eta kudeaketa eta egitura oro hartzen du bere baitan; pentsabide horretatik, unibertsitate-gune desberdinetan egiten den euskarazko jarduera oro da euskal unibertsitatearen zati, eta etorkizunean euskara hutsez aritu litekeen unibertsitate-gunea garatuko balitz, hori ere, euskal unibertsitatearen zati izango da.

Une interesgarri eta berezian etorri zen EIREren kongresua, eta abagune aproposan plazaratu dira haren emaitzak. Kongresuak eta argitalpenak mugarri ahaztezina ezarri dute euskal unibertsitatearen inguruko eztabaidan, eta ekarpen baliotsuak aurki litezke bertan.

Liburuaren edukiak eta ondorioak azalduko dira ondoren. Azkenik, iruzkinaren amaieran, hausnarketarako gonbitea egiten da.

2. Liburuaren edukiak

Euskal Unibertsitatea 2021 liburuak lau eduki-arlo nagusi dauzka: Anali-siak, Gogoetak, Nazioarteko Esperientziak eta Ondorioak. Lehen hiruren deskribapena egin-go da orain, ondorioek aparteko aipamena merezi dutela kontuan hartuta.

Anali-siak kapituluak (berrehunen bat orrialde), irakurleak berrogeitik gora izen-pe desberdin aurkituko ditu sei atali begira. Anali-si horien hastapenetan, Euskal Herrietarako Unibertsitate dei lekiokoen erakundetze zientifikoaren historia laburtzen da; eta Unibertsitate horren historia idaztean, autoreek XIII. mendean koka-tzen dute horren aldeko lehen ahalegina gure artean, eta handik honako bidea laburtzen dute hogeita hamar orrialdetan barna. Bigarren txostenak (zortzi lagunek komunean egindako lana) Euskal Unibertsitatearen datu nagusiak eskaintzen ditu 2000-01 ikasturteari begira; autoreek azpimarratzen dutenez: unibertsitateetara gero eta ikasle euskaldun gehiago hurbiltzen ari da urtez urte, eta hori positiboa da euskarazko unibertsitatearen ideia indartzeko; halere, euskaraz diharduten irakas-leen lan-baldintzak eskasak dira erdaraz dihardutenekin alderatuta, eta hori oztopo esanguratsua da euskarazko unibertsitatearen gorpuzte-bidean. Ondoren hiru anali-si berezitu datoz, atal horietan analisi bana eskaintzen zaie bai Teknika eta Tekno-logia Zientzien jakintza-arloari, bai Osasun Zientzien jakintza-arloari, bai Natur Zientzien jakintza-arloari; hiru kapitulu horiek egitura komuna dute: arazo espe-zifikoak deskribatzen dira abiapuntu gisa eta ondoren etorkizun-estrategiak marrazten dira (kapitulu horietan, hamazazpi autorek hartu dute parte). Azkenik, badago anali-si-kapitulu honetan seigarren atal bat, antolatzaileentzat maila apalagoko ekarpen izan diren zenbait lan espe-zifikok betetzen dutena: guztira hamasei lagunek idatzi-tako sei lan.

Oro har, **anali-siak** deitutako kapituluak euskal unibertsitatea izan litekeenaren deskribapen *bat* egiten du, kontuan hartuta Euskal Herrian atea irekita dauzkaten *unibertsitate ofizialen* errealitatea zein den. Datu-bilketa interesgarria aurkituko du irakurleak atal giltzarri honetan.

Anali-si horietan ez du toki berezirik eduki unibertsitate-erakunde paralelo edo peri-unibertsitario izan litezkeen egitura euskaltzaleen errealitatearen deskribape-nak. Elhuyarrek, Udako Euskal Unibertsitateak, Aranzadi edo Eusko Ikaskuntzak *eraikitzen ari garen euskarazko unibertsitateari* eman diotena edo eman diezaioketena ez da jaso deskribapen analitiko horietan: ez ikasketa-kurrikulumaren arloan egindako ekarpena ezta unibertsitate-ikasleen zein irakasleen trebakuntzaren arloetan egindakoak ere.

Eskuartean dugun liburuaren beste alor nagusi bat **gogoetak** deitutako kapituluak osatzen du (berrehunen bat orrialde). Zazpi atal bildu dira, hona hemen horiek: *bat*) gizarte-prospekzioa, *bi*) euskararen oraina eta etorkizuna unibertsitate bakoitzean, *hiru*) euskal unibertsitatearen irudikapena 2021 urteari begira, *lau*) euskal unibertsitatea giza eta gizarte-zientzietan (izan ere, atal hau ez baita azaldu analisi orokorren kapitulu), *bost*) unibertsitate baldintzak euskal lerroan eta eleaniztasuna, *sei*) unibertsitate-politika eta Euskal Herria, eta *zazpi*) euskara tekniko unibertsitatean. Bataz beste, ekarpen laburragoak dira hauek, analisiekin alderatuta. Kongresuetan ohikoak diren komunikazioen tankerakoak dira asko, ez denak, jakina. Hogeita zazpi autoreren lanak dira, gehienak indibidualak, nahiz eta badiren hiru ekarpen taldean idatziak.

Gogoetak deitutako kapituluaren edukiak zabalak dira eta euren estiloa libreagoa da, ez dira hainbeste analisi kuantitatiboak, ezpada hausnarketa- eta argudiaketa-tankerakoak. Ideia egiteko, hona hemen zenbait titulu: *Kalitatea da benetako erronka, Unibertsitateen hizkuntza-politika, Euskal adarraren garapena, Eleaniztasuna gogoetagai, Zilbor-hestea eten beharra, Irakasle-antolakuntza propiorik gabe ez dago Euskal Unibertsitaterik, Sistema unibertsitario euskaldun eta nazionala, Kulturaren botere simbolikoa...* Kongresuan eta liburuan, analisi-kapituluaren osagarri beharrezkoa da gogoteren atala, etorkizunari lantresna gehiagorekin begiratu ahal izateko. Kongresuaren atak ireki dizkie unibertsitate ofizialez haragoko bestelako interpretazioei kapitulu zabal honek, atal beroa eta proposamen ugariz hornitua da: bizi-bizia.

Nazioarteko Esperientziak deitutakoa da beste kapitulu bat (berrogeita hamarren bat orrialde). Hiru irakurketa interesgarri proposatzen zaizkigu. Lehendabizi, euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako lana, titulutzat duena *Unibertsitatea eta hizkuntza-politika Katalunian*; lana Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko kide bik egindakoa da eta Kataluniako esperientzia azaltzen du, batez ere teknologia berriek gizarte kataluniar modernoan irakaskuntza-lerroetan irekitzen dituzten baliabideak kontuan hartuz. Bestetik, euskaraz eta ingelesez garatutakoa: *Flandriaren emanzipazioa eta unibertsitatearen sorkuntza*; lan honetan, autoreak azaltzen du Flandriako unibertsitateek frantses hizkuntzarekiko izan duten morrontza historikoa zein izan den eta zelan lortu duten egoera deseroso horri itzulia eginarazi. Euskaraz eta katalanez idatzitako *Europako hizkuntza-komunitate txikiak eta hizkuntza horietan garatutako hezkuntza eta unibertsitatea* izenekoak da hirugarren lana; autoreak Europako Batasunaren erakundetze prozesuaren baitan kokatzen du unibertsitateen mundua, eta ikuspuntu teoriko batetik azaltzen du batasunaren prozesuak ez diola zertan kalte eragin behar hizkuntza-komunitate txikietakoko unibertsitateari, baina teoria eta praxia beti bat ez datozela argitzen du autoreak ondoren.

Kapitulu honek, **nazioarteko esperientziak** izenekoak, dimentsio berria gehitu dio kongresuari, dimentsio orokorragoa (unibertsalagoa) aitortzen baitio testuinguru europarraren azalpenak euskarazko unibertsitateari: 40 milioi europarrek bizi duten egoera antzerako batean kokatzen du gu euskaldunok arduratzen gaituen gaia. Hartara, 40 milioi europarrek bizi duten egoera linguistiko minorizatuaren arazo orokorren parte da euskarazko unibertsitatea; euskaldunak badu nora begiratu, bai eta nori erakutsi ere.

Liburuaren edukiak azaltzeko honetan, ezin ahaztu litezke liburuaren bukaera aldean editoreek txertatu dituzten bi **eranskin** interesgarri. Batetik, liburuan parte hartu duten egile guztien zerrenda alfabetikoa: hirurogeita hiru lagun (kongresura hurbildu diren erdiek testu baten edo beste baten osaketan hartu dute parte), bertan izen-abizenekin batera autorearen jakintza-arloa azaltzen da, bai eta lan egiten duen erakundearen izena ere. Eta, bestetik, kongresuaren antolaketaren organigrama: batzorde zientifikoaren konposizioa, antolatzaileen zerrenda, babesleen zerrenda eta laguntzaileen zerrenda.

3. Kongresuaren ondorioak

Kongresuak onartutako ondorio nagusiek eta etorkizunerako proposamenak atal berezitua hartzen dute liburuan: bost orrialde mamitsu. Ondorio horiek liburuaren atarian kontsulta daitezke, eduki nagusien deskribapenaren aurretik.

Lehen urrats batean, Euskal Unibertsitatearen definizioa egiten da eta euskal unibertsitatea *euskarazko* unibertsitate modura hartzen da. Alegia, euskal unibertsitatearen definizio-ardatza hizkuntzan ezartzen du kongresuak, eta ez hainbeste lurralde-egitura jakin eta zehatzen inguruan. Beste modu batera esateko: euskal unibertsitatea euskalduna delako da *euskal*, eta ez Euskal Herrian dagoelako. Bere garaian Karlos Santa Mariak edo Koldo Mitxelenak landutako tesiak gogoratzen ditu irakurketa definitzaile horrek.

Euskal Unibertsitateak *kalitatezko garapen oso eta eutsigarria* lortu behar duela adierazten da ondorioen atalean. Horretarako, kongresuak ezinbestekotzat jotzen du euskaraz mintzaten diren herrialde guztietako gizarte osoaren partaidetza. Garapen oso eta eutsigarria bermatzeko, kongresuak unibertsitate-lege propioak eskatzen dizkie administrazio publikoei.

Ondorioen txostenak dioenez, euskal unibertsitateak Euskal Herri osoa du bere jardueraren barruti propioa eta berezkoa, *euskara baita euskal unibertsitatearen barrutia*.

Kongresuarentzat, funtsezkoak dira osotara euskaldun diren *unibertsitate-guneak eraikitzea eta daudenak indartzea*. Ildo horretatik, antolatzaileek aipamen berezia eta argia egiten dute Kataluniako eta Flandriako unibertsitate-esperientziei buruz, gure burua horien ispiluetan ikusteko.

Egoeraren diagnostika egiterakoan, kongresuak konstatatzen du irakasleria euskalduna lan-egoera eskasean aritzearen faktua. Era berean konstatatzen du ikasleria euskaldunaren gorakada numeriko absolutua eta portzentuala.

Koiunturaren deskribapenean, kongresuak salatzen du ze ikerketa-proiektu gutxi garatzen den euskaraz eta ze eskasia nozitzen duen unibertsitateak euskaraz idatzitako eskola-liburuaren arloan.

2021 datari begira, zenbait arlotan ezartzen ditu bere begiak kongresuak. Batek, aipatzen du unibertsitatearen etorkizuna lotuta egongo dela teknologia berriak zabaltzen ari diren hezkuntza-esparru berrietara. Bestetik, gogoratzen du unibertsitatearen etorkizuna eskariaren etengabeko dibertsifikazioari dagoela lotuta, bai eta horrek eskatzen ei duen aldaketetarako malgutasunari. Data horri begira, bestalde, kongresuak eskatzen du 3. zikloko kalitatezko programak abian jartzea euskaraz, bai eta *euskal unibertsitate birtuala* izan litekeenari bultzada ematea.

Kongresuan eta txosten nagusietan izan den hutsunea bera nabarmentzen da baita ondorioen atalean ere, unibertsitate-erakunde a-ofizialen zeregina eta lekua-ren deskribapena falta nabarmena baita. *Eraikitzen ari garen euskarazko unibertsitate* delako horretan, oso leku apala aitortu zaie euskal unibertsitatearen eragile autonomotzat jo litezkeen erakunde zenbaiti: Elhuyar, UEU, Aranzadi, Eusko Ikaskuntza... Erakunde para- edo peri-unibertsitario horiek euskarazko unibertsitatearen eraikuntzan eta indartze-lanetan zer paper jorratu beharko luketen ez da ageri modu zehatzean, ez txosten nagusietan ezta ondorioen laburpenetan ere. Ahaztura nabarmena.

4. Etorkizuna hemen da, bart heldu da

EIREren kongresurako datu-bilketa hasi zenetik, hiruzpalau urte iragan dira. UEU-ren kongresua buru zenetik, pare bat joan dira. Legebiltzarrak onartu du unibertsitate-legea, Mendebalerako. 2021 datarako gutxiago falta da. EHU erraldoiak errektoretza eta klaustroa berritu ditu. Eta orain zer?

Badirudi koiunturak agintzen duela pentsatzea ezen ziklo berri baten aurrean gaudela. Euskal Unibertsitatearen hausnarketa-etapa garrantzitsua burutu da: EIREK bere hausnarketa egin du, UEUK egin du berea, beste talde eta eragile batzuk berena egin dute. Europako araudi berriak atean joka dauzkagu.

Hausnarketa-garaien ondoren, badirudi integrazio-plangintzak eta sinergia-bilketak jarri behar direla abian, euskarazko unibertsitatea mamitzen joateko. *Euskal Unibertsitatea 2021* liburua irakurri ondoren, honoko bi inkognita nagusi hauen artean hausnarketa sakona egin behar dela iruditzen zait: a) unibertsitate-gune berezitua sortu behar da, euskaraz biziko litzatekeena?; ala b) dauden egituretan sarea lantzen segitu behar da? Erantzuna salomonikoa ere izan daiteke: *lan ditzagun arlo biak*.

Unibertsitate-gunea sortu behar balitz, hona aukera desberdin batzuk: oraingo egituretatik autonomoa?, oraingo egituretara lotua?, campus formatuarekin?, parke monomatematikoaren formatuarekin? sustapen publikoarekin, pribatuarekin, mistoarekin?

Sarea lantzen segitu behar balitz, ze erakako trinkotasuna eman gura zaio ehunari? unibertsitateen arteko katedra konpartituen figura bideragarria izan daiteke sarea-ren ideia indartzeko? zelan uztartu unibertsitate ofizialak eta a-ofizialak?

Horiek argitzeko eta uztartzeko, beste kongresu bat egin behar al da? EIREK berak bakarrik? berarekin batera gainerako eragileek ere?

Euskal Unibertsitatearen lehen harri sinbolikoa jartzera ausartuko al gara bihar-etzi?

Galderak asko dira, erantzunak gutxiago.

Jose Inazio Basterretxea



GARCÍA-SANZ, Ángel; IRIARTE, Iñaki; MIKELARENA, Fernando
Historia del navarrismo (1841-1936). Sus relaciones con el vasquismo
 Pamplona: Universidad Pública de Navarra, 2002. – 311 p. ; 24 cm. – ISBN: 84-95075-90-3